

## Donostian, 2001.eko uztailen 20an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,  
H. Knörr, buruordea,  
P. Goenaga, idazkaria,  
J. A. Arana Martija, diruzaina,  
A. Urrutia, Jagon sailburua (goizean),  
M. Azkarate,  
P. Charritton,  
J. L. Davant,  
A. Eguzkitza,  
A. Iñigo,  
X. Kintana,  
E. Larre,  
J. M. Lekuona,  
F. Ondarra,  
Tx. Peillen,  
J. San Martin,  
I. Sarasola, (goizean)  
eta P. Zabaleta (goizean),  
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-  
kudeatzailea eta  
J. J. Zearreta, ekonomia eragilea

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian bildu da Euskaltzaindia, 2001.eko uztailaren 20an, hileroko batzarra egiteko. Goizeko hamarretan eman zaio hasiera batzarrari. Ezkerreko zutabea jasorik ageri dira bilduen izenak. Ezin etorria adierazi dute Xabier Diharcek, B. Oihartzabalek eta J. M<sup>a</sup> Sartrustegik.

### *Euskaltzainburuaren hitzak*

Mari Karmen Garmendia andreak, orain arte izan duen Kultura sailburu kargua uztean, agur esan nahi izan dio Euskaltzaindiari eta kargu horretarako izendatu berri den Miren Azkarate andrearekin batera etorri da. Euskaltzainburuak bisita eskertu eta etorkizun on bat opa diela esan du.

Ondoren, euskaltzainburuak Euskaltzaindiaren izenean doluminak eman dizkio Patxi Zabaletari, aita galdu baitu berrikitan.

Bestalde, zorionak eman dizkio J. L. Davanti bere azken pastoralara eman baita Sohütan. Jendetsua izan da emanaldia eta lortutako arrakastagatik ongi merezia duela goresmena.

Emile Larre jaunak apezgoan 50 urte bete ditu. Donibane Garazin egin da ospakizuna, uztailaren zortzian. Han ziren Iparraldeko euskaltzainak eta baita Hegoaldeko zenbait ere. Zorionak eman dizkio hari ere.

Miren Azkarateri ere zorionak eman dizkio kargu berriagatik. Alde batetik pozteko dela esan du, nahiz eta, denbora berean, Euskaltzaindiak langile bat galtzen duela ere pentsatzen duen. Euskara Batuko batzordea ere nola apailatuko den ikusi behar da. Zernahi gisaz, orain bederen gobernuan Euskaltzaindiari buruzko informazio zuzenagoa izango dutela uste izatekoa da. Bidezko den tratua izatea espero duela.

Aurreko batzar-agiria onartzea.

Andres Iñigo jaunak lautada-ri buruz egiten den azalpena zuzentzeko eskatu du. Bi aukera ematea onartu zela.

Bestalde, H. Knörr jaunak, azken ordukoetan EITBko auziaz jasotzen dena zuzentzeko eskatzen du eta idatzizko proposamena ekartzen. Testu hau, idazkariaren eta Knörr jaunaren artean adostu ondoren, agirian ezarriko da.

Bi ohar hauekin ontzat eman da agiria.

### *Hizkuntza arauak*

*Onomastika: "Geografia hitzen zerrenda" onartzea.*

Oharrik ez da iritisi idatziz. Hala ere, eztabaida txiki bat sortu da *Ayuntamiento* hitzaren adiera desberdinez. Ondorioz, 'Ayuntamiento (Institución)' gehitzea onartu da.

Llanada eta ordoki-ri dagokion zuzenketa ere gehitu behar zaio zerrendari:

*Llanada (alavesa): Arabako lautada.*

*Llanada : zabaldua.*

Bestalde, *pentze* (= *prado*) hitzari *Ipar.* marka kenduko zaio.

Hiztegi Batua: **abonagarri-agertze** hitz zerrenda.

Andres Urrutiaren *abonagarri*-ri buruzko txostena aztertu da lehenbizi. Hitz hori ez da inon ageri. *Abonatu* bai. *Abonatu*\* e. **ordaindu** ezartzea proposatzen du. Ezer ez ematea onartu da azkenean. *Abonagarri* ere kentzea onartu da.

Ondoren *abonagarri-agertze* zerrendan eztabaidarako markatuak gelditu ziren hitzei buruzko eztabaidari ekin dio batzarrak.

*Abondo*: Miren Azkaratek bere oharrean hitz hau zerrendatik kentzea proposatzen du. Hala onartu da.

*Abonu*-ren kasuan ere Azkarateren oharra onartu da. Ondorioz, "**abonu** 1 'laudorioa'; 2\*. e. **ongarri**" ematea onartu da eta "3 \* e. **abonamendu**". Gainera, *abonamendu* sarrean adibidea emango da: *musika hamabostaldiko abonamendua*.

*Aboral*: teknikoegia dela dio Hiztegi Batuko ohargile batek kentzea onartu da.

*Abordatu* erregimenik gabe ageri da zerrendan: *du* motako aditza dela esango da.

*Aborin*: 'txibiak eta harrapatzeko tresna' gisa ageri da zerrendan. Urrutia jaunak kendu egingo luke, lekukotasun guztiak hiztegi-takoak baitira. Kentzea onartu da. Hala ere, gogoratu egin behar da *koraina* sarrean, *txibi koraina* ere aipatu egin behar dela.

*Abortatu*: *du* aditza dela esaten da zerrendan eta sinonimo gisa *hilaurtu* emateko eskaria dago. Baina erregimenean baliokideak ez direla ez bide dira ohar-tu Hiztegi Batukoak. Horrenbestez, ez dira sinonimotzat emango. *Abortu*-rekin ere modu berean jotkatuko da.

*Abrasio*: *Geol.* markarekin emango da.

*Abu*: ez sartzea onartu da.

*Abudhabiar*-ekin batera *Hiztegi Batuan abuzabiar* ematen da. Hau zuzendu beharrekoa da. Idazkaria arduratuko da zuzenketa hau bideratzen.

*Aburna* zerrendan datorren bezala emango da.

*Adabakitu*: egiten den oharra ontzat eman da. Beraz, *adabatu* forma hobetsira bidaliko da.

*Adaptatu*: \* markarekin ematea onartu da. Horregatik, *adaptatze* eta *adaptazio* ez dira aipatuko.

*Adarmotz*: Bada ohar bat, Elhuyar-eko iritzi-emailearena, emandako araua bete-zeko eskatzen diona Euskaltzaindiari. Horren arabera, *adar-motz* eta *adarmotz*, biak eman behar lirateke. Andolin Eguzkitzak araua aldatzea eskatuko luke. Eztabaida piztu da. Arazoa mahai gainean uztea erabaki da iraila arte.

*Adbertsatibo* oraingoz kendu egingo da.

*Adegi*: kendu egin da oharraren arabera.

*Adi*: izen bezala sartu ala ez eztabaidatu da. Sartzea onartu da, eta baita *adigabe*, *adia galdu* etab. ere. *Aho zabalka*, *adia galdurik* emango da adibide gisa.

*Adiabatiko*: sartzea onartu da.

*Adiagile*-ri dagokion oharra ontzat eman da: adiera emango da, hobespen zeinurik gabe.

*Adigabe* eta *adigabetu* biak sartuko dira.

*Adiguri*: *Heg.* marka gehitzea onartu da.

*Adikuntza* zerrendan ez ematea onartu da.

*Adimendudun* kentzea onartu da. Jadanik *adimen* jaso dago, *adimendu*-ren kal-tetan hobetsia. *Adimendugabe* ere, arrazoi beragatik, kendu egingo da.

*Adimen urriko* eta *adimen urritasun*, biak, sartuko dira.

*Adimenzale*: gaur ez dirudi sartu beharreko. Botoetara jo da: sartzearen aldeko 10. Bi kontra. Bost zuri. Sartzea onartu da, horrenbestez.

*Legezko adin*, zerrendatik kanpo uztea erabaki da.

Puntu honetara iritsirik, Xabier Kintanak ohartarazi du *adin* hitza definitzeko 'edadea' ematen dela. Baina hau ez dator bat *edade*-ri *Hiztegi Batuan* eman zaion sar-rerarekin. Aduriz jaunari eskatuko zaio konponbidea.

*Adinaldi*: sartzea onartu da.

*Adiskidemendu* baztertzekotzat ematen da. Hala onartu da.

*Adiskidetza* hitzari ezin baztertuzko iritzi dio batzarrak. **Adiskidetza** 'adiskideta-suna' gisa emango da.

*Admirable*: zerrendatik kentzea erabaki da.

*Adoi*: jadanik erabakia dago.

*Adoleszentismo*: ez sartzea erabaki da.

*Adondo*: hau ere ez da emango zerrendan.

*Adorarazi*: *dio* motako aditza dela esatea onartu da.

*Adreilatu*: *adreiluztatu* sartzea onartu da. Iparraldeko euskaltzainek ere hau hobesten dute. *Adreilatze* kentzea dakar horrek.

*Adrendua hartu*: horrela ematea onartu zen bere garaian eta ez, mugatzailerik gabe.

*Adrezia*: ahoz oso erabilia da. Beraz, *Ipar. Herr.* markak erantsiko zaizkio.

*Aduanari*: ez sartzea onartu da.

*Aduar*: hau ere bazter uztea erabaki da.

*Adur*: *Bizk.* marka ezartzeko eskaria ez da onartu. Horrenbestez dagoen dagoe-nean utziko da.

*Adurti*: sinonimo gisa *lerdetsu* ematea ongi ikusi da, baina *haguntsu* beste zerbait da: 'apartsu'. Horrenbestez, hitz hau ez da emango sinonimo gisa.

*Aerobic*: kanpoan uztea erabaki da.

*Aerolabangailu*: sartzea onartu da.

*Aerosorgailu*: ez da onartu sartzea.

*Afan*: *Beh.* marka ez zaio ezarriko. Horrenbestez, honela emango da: *Heg. h. zaletasuna, harrokeria, grina.*

*Afektibotasun*: biak uztea onartzen da, *afektibitate* eta *afektibotasun*.

*Afirmazio*: zerrendan esaten denarekin ados agertu dira euskaltzainak. Beraz, e. **baieztapen, baiezko.**

*Afizio*: *Heg.* marka eranstea onartu da.

*Aflijitu* eta *aflikzione*: biak kendu dira zerrendatik.

*Afoinu*: *Heg.* 'haize hezea, hezetasuna' dela esango da.

*Agergarri*: Miren Azkarateren iradokizuna ontzat eman da. Beraz, honako adibide honekin agertuko da sarrera hori: *gure bihotzeko saminaren agergarritzat.*

*Agerle*: zerrendatik kanpo uztea erabaki da.

Honenbestez, *abonagarri-agertze* zerrendaren eztabaida amaitutzat eman da. Zintzilik geratu da *adarmotz/adar-motz* idazkeraren kontua.

Bestalde, Miren Azkarateren kargu berria dela eta, Euskara Batuko batzordeari eskatzen zaio erabakitzea nor izango den aurrerantzean "bozeramale" eta zein izango den prozedura.

### *Eskuartekoak*

1) *Orotariko Euskal Hiztegi*ko lantaldearentzat Donostian prestatu diren lokalen inaugurazioaren berri eman zaie euskaltzainei. Zenbat kostatu diren, nolakoak diren eta abar. Azkenean 11 milioira iritsi da. Oraindik zenbait hobekuntza egin behar direla esan da. Udalak bi milioi eman ditu aurten.

2) Nafarroako Unibertsitate Publikoko Euskararen Normalizazioaren egoeraren aurrean Sustapen batzordean onartutako testua aurkeztu zaio Euskaltzaindiari eztabaidatu eta onartzeko. Adierazpena eta gutun bat izango dira. Idazkariak galdetu du ea gutuna eta adierazpena batera joango diren. Lehenbizi gutuna helaraztea dela egokia eta ondoren, erantzuna ikusita, adierazpena zabalduko litzateke.

Ohar zenbait egin dituzte Zabaletak, Goenagak, etab. Jasotako oharrekin testua prestatuko dute Andres Iñigok eta Andres Urrutiak, Nafarroako ordezkari eta Jagon sailburu diren aldetik, hurrenez hurren. Hauek arduratuko dira errektoreari eta abarrei gutuna helarazten eta erregistrora eramaten.

3) Euskaltzaindiaren ordezkariak (P. Goenagak, Andres Urrutiak eta Andres Iñigok) Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikaren arduradun den Pedro Pegenate jaunarekin egindako bilkuraren berri eman du. Nafar Gobernuak Atlasetik Euskal Herria hitza ezabatzea nahi du aurtengo hitzarmen-protokoloa sinatuko badute. Bestalde, badirudi beste hitzarmen baten atzetik abiatu nahi dutela, Euskaltzaindiaren eta Nafar Gobernuaren arteko hitzarmen berri bat, orain arte indarrean dagoen Herri Aginte desberdinekikoa alboratu ziteke.

Ondoren, Andres Urrutiak Pegenate jaunari helaraziko zaion erantzun-gutuna aurkeztu du: a) izen aldaketa proposatzen da (*Euskararen Herri Hizkeren Atlas*); b) atlas bakarra izango litzateke; c) atlas-proiektuarentzat orain arteko marko bera ikusten du Euskaltzaindiak egoki, euskara egiten den lurralde guztiak biltzen dituelako; d) *Euskal Herria* terminoa, bere balio linguistiko-kultural ongi zehaztuarekin, ezin alboratuzkoa da Euskaltzaindiarentzat.

Patxi Zabaletak euskaltzainburuari ahalegin berezia egin dezala eskatu dio eta joan dadila bera ere nafar agintariengana. Zuzendaritzak eskatzen diona egingo duela erantzun dio.

Miren Azkaratek gehitu du ahaleginak egin behar direla hitzarmen bakarrari eusteko.

### *2002ko aurrekontuak*

Juanjo Zeharretak egin du 2002rako prestatu den aurrekontu proiektuaren aurkezpena, sartu diren berrikuntzak azalduz. Irailaren 15erako oharrak egiteko eskaria egin zaie euskaltzainei. Irailaren amaierako aurkeztuko dira Lakuan.

Charritton jaunak kopuruak eurotan jartzeko eskatu du.

*Anton Abadia saria*

Gipuzkoako Diputazioak ematen duen Anton Abadia sarirako Zuzendaritzaren proposamena da Juan San Martinen hautagaitza aurkeztea. Onartu da. Proposatuak ere onartu du.

Eta zazpiak laurden gutxitan amaitutzat eman da bilera. Eguerdian bi orduko ete-naldia izan da, bazkari legea egiteko.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga